



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Eskola eta jakintza

Aurrekoan ikasleek galdetu zidaten ea ETAr **buruz zeozer ikasiko dugun aurren**. Ez di-
zuet nire erantzuna esango, gaurkoan. Beste
zerbait azpimarratu nahi dut horren harira.
Gaztetxoek, berriro ere, jakiteko eta ikasteko
gogo transmititu zidaten. Orokortua dago ad-
ministrazioan eta unibertsitateko pedagogo askoren artean,
eskolaren egiteko nagusia gaztetxoak egunerokotasunean
maneiatzeko jakin dezaten oinarritzko trebetasunak erakus-
tea dela: lanerako gaitasunak, emozioen kudeaketa... Bate-
tik, horrek ez du kontuan hartzen eskolan gaztetxoek beren
denboraren %12 pasatzen dutela gurekin urtebetean eta
%78a eskolatik kanpo. Beraz, egunerokotasunean manea-
tzearen inguruan, eskolak lagun dezakeena oso mugatua
da, esanak esan, eta familiek eta lagunarteak askoz ere era-
gin handiagoa dute.

Bestetik, egia da badirela zenbait gaitasun erakutsi behar-
ko dizkiegunak (egoki komunikatzen, trebetasun teknologi-
ko zenbait, pentsamendu zientifikoaren oinarriak...), baina
eskolak ezin du galdu bere funtsezko izatearen oinarria:
egunerokotasunean jasoko ez dituzten jakintzak eskaintzea,
batez ere langile familieta-
ko seme-alabei. Baldin eta
nahi duguna eskolak nola-
bait gizarteko desorekei ba-
lazta jartzea bada. Bestela,
lau gaitasun oinarritzko era-
kutsita, sistemaren beheal-
dean jarraitu eta mendeko
izan daitezen erakutsiko
diegu besterik gabe eta, gai-
nera, frustrazioa 'pozikti-
bismo' eta 'autoerru' bihur-
tzeko esango diegu, sistemaren funtzionamen-
dua bera ezagutzeko eta ho-
ri bera etorkizunean zalan-
tzan jar dezaten jakintza
transmititu beharrean.

**Praktikan, ikasleok ira-
kasleoi eskatzen digutena
gure jakintza partekatzea
da.** Beraiek badakite guk as-
ko ikasi dugula eta, beraz, fi-
datzeko modukoak garela.
Jolas dinamikek, etengabe-
ko ekintzek eta kolorez be-

tetako gelek oso entretenituta eduki ditzakete, eskola haur-
tzaindegia bailitza. Baina bai administrazio autonomikoei,
bai espainiar Gobernuaren hezkuntza lege berriak, hitz poli-
tez eskaintzen digutena langile familiak sistemaren peoi iza-
ten jarraitzea da. Arduratu egiten nau, benetan, irakasle eta
guraso askok, ezkerreko balioak konpartitzen dituztenek, BB-
VA fundazioaren eta Europako Batzorde neoliberalaren me-
zu berbera errepikatzeak eskolari dagokionez.

Are gehiago, historiari dagokionez eta ETA aipatzekotan,
memoria akritiko eta onbera da legeak exijitzen duena. Giza
eskubideen inguruko parafrasi hutsala. Baina irakasleok ez
dugu formaziorik jasotzen benetan guztion eskubideetan
oinarritutako hezkuntza bat eskaini dezagun. Gamifikazioa
eta dozenaka app, txiribuektak ematen dituzten diapositi-
bak... hori da eskaintzen digutena. Baina ez dago ez denbo-
rarik, ez eta nahirik ere, irakasleok formatu gaitezen histo-
ria postkolonialean edo ikas dezagun etengabe genero
ikuspegia txertatzen gure gaitegietan, punta-puntako histo-
rialarien edo filosofoen lanak ezagututa.

Izan ere, dena Interneten omen dago. Baina ikusi besterik
ez dago sareetatik hartuta
zein mezu errepikatzen di-
tuzten gaztetxoek eta edo-
nork nabari dezake nola
funtzionatzen duen Youtu-
beko logaritmoak, zientzia-
ri buruzko dibulgazioa bila-
tu eta handik hoge
minutura terraplanismoa-
ren inguruko bideoak eta
katakume barregarriak
ikusten ari zarenean. Esko-
lak ez ditu egungo mundua
eta teknologia etsai bezala
hartu behar, inondik ere,
baina mundu horretan ma-
neiatzeko gakoa ez da eten-
gabe teknologia eta jokoak
sartzea gelan. Baizik eta ka-
litatezko jakintza eskain-
tzea ikasleei, egunerokota-
sunean eta sarean gal ez
daitezen. Belaunaldiz be-
launaldi pilatutako jakin-
tza, berez, egunerokotasu-
nean ez itotzeko tresnarik
ederrena baita. •



Gelan etengabe teknologia eta jokoak sartzea ez da gakoa. Luis JAURGIALTZO | FOKU